

URTEKO TXOSTENA 2021

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA



EDUKIA

LABURPENA IRUDIETAN	5
NABARMENDUAK	6
“Eleibar”: Liburutegia arrakala digitalaren aurrean	6
Proiektuaren deskribapena	6
Helburuak	7
Xede-biztanleria	7
Metodologia	7
Emaitzak, lorpenak	8
Ondorioak eta gomendioak	8
Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea	9
Liburutegiko tailerrak: erabiltzaileen formazioa (ALFIN)	9
Liburutegi ibiltaria	11
Gida bibliografikoak lantzea	12
irakurzaletasuna bultzatzea	14
Bularretik Mintzora programa	14
Zapatuko ipuina	16
Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba)	17
Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba)	18
Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba)	19
Haur eta Gazteentzako Liburuen Nazioarteko Eguna	21
LiburuTuber Lehiaketa	21
Ikasleentzako erakusketa didaktikoak	22
Itsaspeko bihotzak areto literarioa	22
Bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako Nazioarteko Eguna: Bide-foruma	24
Liburua, ate bat Kulturarako	25
Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz	26
Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz)	28
Irakurketa errazeko klubak	29

Liburuaren Nazioarteko eguna.....	30
Hitzaldiak eta liburu-aurrezpenak	31
Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque	32
Hitzak zaindari erakusketa	34
Erakusketak interesguneetan.....	35
KOPURUAK	37
Bisitak / Erabiltzaileak	37
Personas usuarias con carné de biblioteca	37
Erabilera ordutegi berezian.....	37
Katalogazioa eta funtsa	38
Herriko bilduma.....	38
Liburuklik	38
Maileguak.....	38
Desideratak	39
Internet zerbitzuaren erabilera	39
Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak.....	39
Web-orria	39
<i>OPAC (sareko katalogoa)</i>	39
Sare sozialak	39
Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza.....	40
Erabiltzaileak	41
Liburutegira datozen pertsonak.....	41
Bazkideak.....	41
Funts bibliografikoa.....	43
Maileguak.....	44
Helduen atalean egindako maileguak.....	45
Umeen atalean egindako maileguak.....	47
Maileguak hizkuntzaren arabera.....	49
Mailegua sexuen arabera	50
Mailegua adinaren arabera	50
Automailegua	51

Liburutegiarteko mailegua	51
eLiburutegia zerbitzua	52
KONTUAK	55
Diru-sarrerak	55
Gastuak.....	55
PRESTAKUNTZA.....	57
HORREZ GAIN... ..	58
Liburutegi Publikoen X. Kongresu Nazionalen parte hartzea.....	58
Artikuluak Ibersid-en: informazio- eta dokumentazio-sistemen aldizkaria.....	59
Armeria Eskolak emandako funtsa.....	60

LABURPENA IRUDIETAN



NABARMENDUAK

“Eleibar”: Liburutegia arrakala digitalaren aurrean



Proiektuaren deskribapena

Eleibar egitasmoa liburutegien eta erakundeen arteko lankidetzan oinarrituta dago; hainbat jarduera egin dira Eibarko Udal Liburutegian COVID-10aren pandemiarekin areagotutako eten digitala murrizteko.

Jarduera horietan, eskolako errefortzu-saioak eman zaizkie familia kalteberetatik datozen adin txikikoei Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) oinarrituak, eta gurasoei ALFIN (informazio-alfabetatze) tailerrak eman zaizkie.

Gainera, jolasen eta proposamen ludikoen bidez, 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko 10. helburua landu da: desberdintasunak murriztea.

Liburutegiaren eta instituzioen arteko lankidetza bi ardatzetan sustatu da:

- Lehen, Eibarko Udaleko hainbat sailen lankidetza proiektuarekin: Kultura, Gizarte Zerbitzuak, Euskara, Haurreria eta Gazteria.
- Bigarrena, hitzarmenak sinatzea Udalaren eta beste erakunde batzuen artean, zehatzago Egoaizia GKE eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

Helburuak

- Instituzioen eta liburutegiaren arteko lankidetza sustatzea osasun krisiaren eraginez familia batzuen informazio-eskaerei erantzuteko.
- Balioan jartzea liburutegiaren baliabideak Lehen Hezkuntzako ikasleen eta haien gurasoen arrakala digitala murrizteko.
- 2030 Agenda, oro har, eta 10. GJH, bereziki, gai horien berri ez duten biztanleria-sektoreetara hurbiltzea.
- Hartzaile diren umeen artean euskara bultzatzea, hezkuntzako- eta lan-arloko hizkuntza koofizial gisa.
- Gurasoei formazioa ematea beren seme-alaben prozesu akademikoa gainbegiratzeko beharrezkoak diren tresna teknologikoen erabileran.

Xede-biztanleria

Lehen Hezkuntzako ikasleak, beren bizikidetzaren unitateetan IKTak eskuratzeko arazoak dituzten familietakoak.

Ikasle horien gurasoak, zeinak, etorkinak izateagatik edo euskaraz ez hitz egiteagatik, eragozpenak baitituzte euskal hezkuntza-sistemearekin.

Metodologia

Proba-pilotu bat egin da 4 astekoa Juan San Martin Liburutegi Publikoan, pandemiaren ondoren ekimenarekin jarraitzeko aukerak ebaluatu eta baloratzeko. Astero ordu eta erdiko saioak egin dira hiru eta lau ikaslez osatutako hiru taldetan, hala Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen COVID protokoloa errespetatuz. Saiotan bai irakasleek bai praktiketako pertsonak ikasleen gaineko behaketa-fitxak bete dituzte.

Emaizak, lorpenak

Proba-pilotuaren lau asteetan zehar, areagotu egin da liburutegi-baliabideen erabilera, bai eta karneta egin duen erabiltzaile-kopurua ere. Alde batetik, ekimenean parte hartu duten umeek eta haien anai-arrebek sarriago erabili dute liburutegiko umeentzako gela, askotan gurasoek lagundurik. Bestalde, areagotu egin da hezkuntza-saioekin lotutako liburu eta materialen mailegua, bai eta Interneteko terminalen erabilera-denbora. Azkenik, Liburutegiko langileek modu aktiboan parte hartu dute, gurasoei Informazio Alfabetatzeko tailerrak emanez, eta irakasleei lagunduz eskoletarako edukia bilatzen.

Ondorioak eta gomendioak

Liburutegiko baliabideak desberdintasunak murrizte aldera Eleibar proiektuaren prospekzioaren eta kasu-azterketaren bidez erabili ondoren, egitasmoaren ondorioak eta gomendioak aurkeztuko ditugu.

1. Liburutegiko baliabideak (informazio-baliabideak, instalazioak, giza baliabideak eta finantzazioa) tresna baliagarriak dira desberdintasunak murrizteko.
2. Egitasmo honen arrakastarako, ezinbestekoa eta beharrezkoa izan da Liburutegiaren eta Eibarko Udaleko beste Sail batzuen artean, bai eta kanpoko entitateen artean ere.
3. Liburutegiak gai dira beren erabiltzaileak gerturatzeko beren produktu eta zerbitzuen bidez.
4. Beharrezkoa da liburutegiei beharrezkoak diren baliabideak ematea arrakala digitala murrizteko eta 10. GJHa lortzen laguntzea: Desberdintasunak Murriztea.
5. Lagungarria da jardunbide onak dituzten liburutegien mapak lantzea, hala nola Fundación Biblioteca Social delakoa eta IFLA Liburutegien Elkarte eta Erakunde Nazioarteko Federazioa.
6. Liburutegiak 2030 Agenda abian jartzeko eragile giltzarritzat jotzea eta Garapen Jasangarriko Helburuak aintzat hartzea.

Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea

Lankidetzan horretan bisita gidatuak egiten dira, erabiltzaileak hezi, irakurzaletasuna bultzatu liburu sorten aukeraketa eta maileguen bidez eta gida bibliografikoak lantzen dira.

Liburutegiko tailerrak: erabiltzaileen formazioa (ALFIN)



Deskribapena eta hartzaileak

Liburutegiko tailerrak Eibarko Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei dago zuzendua, eta baita Helduen Hezkuntzako ikasleei eta pertsona helduei ere. Nahi duten ikastetxe guztiek har dezakete parte.

Tailerrak adin tartetara daude egokituta.

Haur Hezkuntza

LIBURUTEGIAN KONTU-KONTARI: Haur Hezkuntzako **2. eta 3.** mailetako ikasleei zuzendutako saioak, zeinetan ikasleak estreinako gerturatzen diren Liburutegira.

Lehen Hezkuntza

IRAKURTZEN BADAKIT: Lehen Hezkuntzako **1. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.

EGUN BAT LIBURUZAIN: Lehen Hezkuntzako **2. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.

LIBURU ARTEAN: Lehen Hezkuntzako **3. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

INFORMAZIOA HELBURU: Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleei zuzendua.

Pertsona helduak eta kolektiboak

LIBURUTEGIA EZAGUTZEN: Interesa duten taldeak edo elkarteak

Helburuak:

Liburutegiko kontzeptura hurbiltzea

Liburutegiko portaera-jarraibideak eta horien funtzionamendu-arauak ezagutzea eta jarraitzea.

Liburutegiaren espazioa ezagutzea.

Eskaintzen dituen zerbitzuak eta haiek erabiltzeko moduak ezagutzea.

Liburuak eta gainerako materialak sailkatzeko sistema ezagutzea, eta liburutegian orientatzen ikastea errotuluen eta seinaleen laguntzarekin.

Katalogoa erabiltzen ikastea.

Informazio-iturriak ezagutzea. Bilaketa-prozesurako gaitzea (ALFIN).

eLiburutegiaren funtzionamendu orokorra ezagutzea.

Noiz

Ikasturtean zehar, batez ere, urrian eta azaroan

Bitartekoak:

Ordenagailuak (OPAC Linean kontsultatzeko katalogo publikoa) eta jolasean erabilitako materiala: fitxak, eta abar.

Jardueretan metodologia parte-hartzailea, ludikoa eta kooperatiboa erabiltzen da, baita baliabide eta tresna digitalak ere.

Prestakuntza-blokeak ezartzean, ikasleen adina kontuan hartuta, saioetan lortutako ezagutza metagarria izatea bilatzen dugu.

Proiektuaren arduraduna

Tailerrak Liburutegiko langileek egiten dituzte. Liburutegiak email bidaltzen die ikastetxeei jardueraren daten berri emanez eta egutegi bat ezartzen da.

Aurrekontua: 0,00 €

Balorazioa

Jarduera oso ondo baloratzen dute udalerriko ikastetxeek. 7 ikastetxe daude herrian eta normalean denek parte hartzen dute. Aurten EPAko (Helduen Hezkuntza) talde batzuek ere parte hartu dute. **33 saio** egin ditugu eta **605 pertsonak** parte hartu dute.

Azpimarratu behar da 33 saio horietatik **11** ikastetxeetan bertan egin zirela zuzenean, ikasleak ezin baitziren pandemiaren ondorioz Liburutegira joan taldetan.

Liburutegi ibiltaria




Udal Liburutegiak, baliabideak batu eta zerbitzuak hobetzeko asmoz, laguntza-zerbitzua eskaintzen die eskoletako liburutegiei, kasu batzuetan prekariedade-egoeran eta pertsonalik gabe baitaude. Hala, Juan San Martin Liburutegiaren ekarpen nagusia eskariaren arabera liburuak eskaintzea da, izan gai jakin batekoak izan liburutegiko langileek hezkuntza-ziklotara egokitutako aukeraketa bat.

2018an erronkatzat hartu genuen ikastetxeekin dugun harremana sendotzea eta hainbat bilera egin genituen, azalduz zein ziren guru jarduerak eta zer zerbitzu eskaini genezakeen. Harrez geroztik, ikastetxeek gero eta gehiago erabili dituzte Udal Liburutegiko zerbitzuak.

Eskaini genuen zerbitzuetako bat liburu sorten mailegua izan zen. Horren ondorioz, 2017an 316 mailegu egin zitzaizkien ikastetxeei, ea 2019an 1.590.

2020an, ikastetxeak eta Liburutegia itxita egon zirenez, ikastetxeetan egin zen mailegu-kopurua 491 izan zen, eta, 2021ean berriz ere **1.183 maileguraino** igo da. Jasotzen ari garen balorazioa oso ona da, eta horrek adone ematen digu bide horretan jarraitzeko eta ezarri dugun aliantza hau estrategikotzat jotzeko.



Argi dago era horretako programak elkarlanean aurrera eramateak **bilduma bibliografikoaren erabilera areagotzen duela**, baita liburutegiko **bazkide-kopurua** eta **liburutegia topagune gisa** erabiltzea ere.

Izan ere, familiek, ikastetxeek eta liburutegiek helburu berbera dugu: **irakurmenaren gaitasuna eta irakurzaletasuna sustatzea**.

Gida bibliografikoak lantzea

Liburutegiak gida bibliografikoak lantzen ditu, batzuetan Udaleko beste sail batzuekin lankidetzan, kolektiboei, ikastetxeei eta herritarrei oro har irakurketak gomendatzeko. Gida horiek Liburutegiko webgunean argitaratuko dira, Argitalpenak atalean.¹

2021ean, honako irakurketa-gida hauek eskaini dira:

¹ <https://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca/publicaciones>

- **Pertsona helduentzat:**

[M8 2021: Tejiendo redes de vida](#)

[Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina 2021: Mila milioi ahots](#)

[LGTB+ Eskubideen nazioarteko eguna: irakurketa gida \(2021\)](#)

[Indarkeria Matxisten Aurkako matazak ehuntzen \(2021\)](#)

- **Neska-mutikoentzat eta gazteentzat**

[Berdintasuna helburu: genero berdintasuna lantzeko irakur gida \(2021\)](#)

[Familientzako gida: Gozatu udan irakurtzen eta jolasean \(2021\)](#)

[Gabonak 2021](#)

IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA

Bularretik Mintzora programa



Programa hiru zutabetan oinarritzen da eta irakurketa sustatu nahi du 0 eta 8 urte arteko umeen artean. Zutabe horiek Liburutegia, Eskola eta Familia dira.

Hartzaileak

0 eta 8 urteko neska-mutikoak eta gurasoak

Helburuak

- Haur literatura bultzatzea (batez ere euskaraz)
- Liburutegia kalitatezko bibliografiaz hornitzea
- Haur literaturaren maileguak handitzea
- Gurasoei, hezitzaileei eta umei irakurketaz gozatzeko guneak eskaintzea.
- Gurasoei eta hezitzaileei boz gora irakurtzeko trebakuntza ematea.
- Umeek konpainian irakurtzeko gune lasai bat izan dezaten lortzea.
- Familiak kontzientziatzea irakurtzeak duen garrantziaz.
- Liburutegia ezagutaraztea hainbat arrazoiengatik hura ezagutzen ez duten familiei.

Egutegia	Urtean zehar.
Bitartekoak	Liburutegia arduratzen da bibliografia erosteaz eta toki bat antolatzeaz Umeentzako Gelan. Ikastetxeen lankidetzaz garrantzitsua da, ikasleak programako liburuak maileguan eramatera etortzen baitira Liburutegira.
Programaren arduraduna eta laguntzaileak	Liburutegia. Proiektuan ikastetxeek eta familiek hartzen dute parte.
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa eta estatistikak	<p>Bularretik Mintzora programaren ondorioz, handitu egin da Liburutegiaren erabilera.</p> <p>Egiaztatu dugunez, jende gehiago dator Liburutegira, eta Umeen Liburutegian dokumentu gehiago lagatzen dira programa hasi aurretik baino.</p> <p>607 liburu ditugu eskuragarri programarako, eta 2021ean 2.402 mailegu egin dira.</p> <p>Maileguei buruzko datuak liburuena dira gehienak, izan ere, gainerako euskarriak gero eta gutxiago eskatzen dira. Aurten jaitsiera bat egon da Liburutegiaren itxiera eta eskoletako programaren etena direla-eta.</p>

Zapatuko ipuina



Deskribapena Urtean zehar ipuin-kontakteta saio bat egiten da hilero azken zapatuan.

Hartzaileak 3 urtetik gorako umeak.

Helburuak Irakurzaletasuna bultzatzea ahozko literaturaren bidez Aisialdirako aukerak ematea asteburuetarako

Egutegia Urritik apirilera arte, hilero, azken zapatuan.

Bitartekoak Liburutegiko langileak. Ipuin-kontalariak kontratatzea. Kartelak, eta abar. Saioak Areto Nagusian egin dira, edukieran izan diren murrizketak direla-eta.

Proiektuaren arduraduna Liburutegiko arduraduna

Aurrekontua **1.994,00 €**

Balorazioa Jarraipen bat egiten da honako hauek kontuan hartuta: saioan parte hartzen duen umeen kopurua, egun horretan zer eguraldi zegoen, saioaren kalitatea (ipuin-kontalariaren kalitatea, publikoa erakartzea lortu duen, eta abar).

180 neska-mutiko etorri dira egin ditugun 6 saioetara.

Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeko.

Hartzaileak 1 urteko eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko geletako umeak, gurasoez lagunduta. Bi talde osatu dira.

Helburuak Helburua da entzumenā, ukimena, ikusmena, usaimena eta dastamena ate bat izatea literaturara hurbiltzeko. Abestiak, ipuin laburrak, hitz-jokoak... berreskuratuko ditugu azaleko ipuinetan erabiltzeko. Halaber, liburuak eskaintzen dizkiguten hainbat baliabide ezagutuko ditugu.

Noiz Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

Bitartekoak Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.

Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	3.267,00 €
Balorazioa	Hiru talde izan ditugu. 133 neska-mutikok hartu dute parte egindako saioetan. Parte hartu duten familien kopurua murriztu egin behar izan da urte gehiengan, edukiera-murrizten neurriengatik.

Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeko.
Hartzaileak	Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletako umeak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. geletakoak, gurasoez lagunduta. Lau talde osatu dira.

Helburuak	Irakurketa-kluba dinamizatzea, jarduerak, jolasak eta dinamikak sustatuz motibazioa eta liburura gerturatzea bultzatzeko, desiotik, interes propioetatik eta fantasia pertsonaletatik abiatuta.
Noiz	Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.
Bitartekoak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzaileria Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	3.267,00 €
Ebaluazioa.	Hiru talde izan ditugu. 145 neska-mutikok hartu dute parte egindako saioetan. Parte hartu duten familien kopurua murriztu egin behar izan da urte gehiengan, edukiera-murrizten neurriengatik.

Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena Garbi dago literaturak eta letren munduak aberastu egiten dutela ume eta gaztetxoek garapena. “Paperezko hegoak” programan tailer

bihurtzen dugu irakurketa-kluba, eta saio bakoitzean, irakurri dena taldean lantzeaz gain, sormen-ariketa bat egiten dugu.

Hartzaileak

Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoko ikasleak eta Bigarren Hezkuntzako 1. Kurtsokoak.

Helburuak

Parte hartzaileek beldurra galtzen diote irakurtzen dituzten liburuak komentatzeari eta oso ondo pasatzen dute.

Gainera, lortzen dugu umeak ez urruntzea erabat irakurketatik, eta aukera ematen diegu ikastetxean programatuta dauden baino liburu gehiago irakurtzeko.

Noiz

Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

Bitartekoak

Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu. Parte-hartzaile bakoitzarentzat liburu bat ekartzen da liburuarteko maileguan.

Proiektuaren
arduraduna

Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzailea Naiara Rubio da.

Aurrekontua


Guztira, **2.720,00 €**.

Ebaluazioa.

Bi talde izango ditugu, eta **118 neska-mutikok** parte hartu dute egindako saioetan.

Haur eta Gazteentzako Liburu Nazioarteko Eguna

LiburuTuber Lehiaketa



Deskribapena

Lehiaketa bat antolatu zen Haur ta Gazteentzako Liburu Nazioarteko Eguna ospatzeko eta irakurzaletasuna ikus-entzutezkoen bidez sustatzeko ume eta gazteen artean. Parte hartzeko, liburu bat aukeratu behar zen eta bideo batean gomendatu eta Liburutegira igorri.

Lehiaketan 6 eta 14 urte arteko ume eta gazteek har dezakete parte.

Hartzaileak

Hiru kategoria daude: Lehen irakurleak (6-9 urte), Irakurle aurreratuak (10-12 urte) eta Super irakurleak (13-14 urte).

Helburuak

Irakurzaletasuna bultzatzea ikus-entzunezkoen kanalen bitartez
Gomendioak jasotzea eta gure Youtubeko kanalera igotzea

Noiz

2021eko martxoaren 25etik apirilaren 19ra.

Bitartekoak	Hiru pertsonaz osatutako epai-mahai bat antolatu zen bideo irabazleak hautatzeko.
Proiektuaren arduraduna	Haurren Liburutegiko arduraduna.
Aurrekontua	225,00 € kategoria bakoitzean saritutako liburueterako.
Ebaluazioa.	Jasotako bideoak, gurasoen baimena lortu ondoren, gure Youtube kanalean jarri ziren: https://youtube.com/playlist?list=PLhHdROsvhB6S1H024-TuuQGnRbeZzOM9J Lehiaketa oso arrakastatsua izan da: Guztira 27 neska-mutikok parte hartu dute eta 22 bideo bidali dituzte.

Ikasleentzako erakusketa didaktikoak

Itsaspeko bihotzak areto literarioa





Deskribapena Literatur gune honetan genero-berdintasuna lantzen da euskarazko haur literaturaren bidez. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du hezikidetzara ardatz duena.

Hartzaileak Batez ere pentsatua dago Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek bisita gidatuak egin ditzaten. Hortaz, bisita horiek ikastetxeekin hitzartuko dira.

Baina erakusketa zabalik egongo da Erakusketa Aretoaren ohiko ordutegian, bai pertsona helduek bai familiek ikus ditzaten erakutsitako liburuak eta arte-lanak, eta gaiari buruz hausnar dezaten.

Helburuak Literatura kohezitzailea ezagutzera ematea bai neska-mutikoei bai helduei.

Artean eta estetikan heztea begirada artistikoa landuz.
 Praktika pedagogiko kohezitzaile bat aurrera eramatea.
 Imaginario kolektiboan dauden sexu eta genero estereotipoak gainditzeko aukera ematea.

Egutegia Martxoaren 15etik 25era.

Bitartekoak Portaleko Erakusketa Aretoa erabili genuen.

Proiektuaren arduraduna Liburutegia, Galtzagorri elkartearen bidez. **Udalaren Berdintasun Sailarekin** lankidetzan.

Aurrekontua **1.268,00 €**. Beste 1.268,00 € Berdintasun Arloak jarri zituen.

Parte hartu zuten ikastetxeek balorazio positiboa egin dute.
Erakusketan **196 neska-mutikok** parte hartu dute, 4 ikastetxetako 9 taldetan banatuta. Familien saiora **10** pertsona joan ziren.

Bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako Nazioarteko Eguna: Bide-foruma

BULLYING EDO ESKOLA-JAZARPENAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

BIDEO-FORUM

Apirilak 30 abril, 17:00-19:30

+ 7 urte

pelikula GAZTELERAZ
eztabaida EUSKARAZ

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA

liburutegia@eibar.eus
Tf. 943 70 84 37

DINAMIZATZAILEAK:
Naiara Rubio
Peru Magdalena

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA

HAURRAK, NERABEAK ETA FAMILIA ARLOA

EIBARKO UDALA
Auzo Bero Martiriak Liburutegia

Elkarrekin, gure herria. Elkarrekin, gure herria. Elkarrekin, gure herria.


Maiazaren 2an **bullyingaren edo eskola-jazarpenaren aurkako Nazioarteko Eguna** da:

Deskribapena

Ekimen berezia antolatu dugu egun horretarako, eskola-jazarpenaren inguruan gogoeta egiteko.

Hartzaileak	Ekimena 7 urtetik gorako neska-mutiko eta gazteei zuzenduta dago.
Helburuak	Adin txikikoek eskola-jazarpenaren inguruan hausnarraraztea.
Noiz	Apirilak 30
Bitartekoak	<i>Un puente hacia Terabithia</i> , Gabor Csupo-ren filma Peru Magdalena eta Naiara Rubiok zuzendutako bideo-foruma .
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Gizartekintza Saileko Haurreria, Gazteria eta familia Sailarekin lankidetzan.
Aurrekontua	340,00 € . Gizartekintza Saileko Haurreria, Gazteria eta familia Sailak jarri zituen.
Ebaluazioa.	20 pertsona egon ziren ekimenean, 16 neskatila eta 4 mutiko. Eztabaida gidatu zuten pertsonen balorazioa oso ona da, eta parte-hartze handia egon zela adierazi zuten.

Liburua, ate bat Kulturarako



Ekimen hau zokketa batean datza: irakurleen artean sarrerak Deskribapena zokketatzen dira bai Eibarko Udalak bai herriko beste talde batzuek antolatutako ekitaldietarako.

Erabiltzaileak liburu bat maileguan hartzen duen bakoitzean, paper bat jasotzen du; gero liburua itzultzean papera entregatu behar du (bere datuekin), eta ikuskizunetara doan joateko zozketan sartzen da.

Helburuak	Liburua entretenitzeko aukeratzen duten erabiltzaileak "saritzea".
Egutegia	Urtean zehar. Aurten ekainera amaiera arte bakarrik egin da.
Bitartekoak	Liburutegiko langileak eta Kultura Sailak ikuskizunetarako ematen dituen sarrerak.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegia
Aurrekontua	Diru-sarreraren kostua. Kulturako aurrekontuaren kargu.
Balorazioa	Bina sarrera zozketatu dira 24 ikuskizunetarako, horietatik 22 helduentzat, eta 2 haurrentzat; guztira 58 gonbidapen banatu dira, 23 emakumeen artean eta 6 gizonen artean.

Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz



Deskribapena	Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilera horiek pertsona batek koordinatzen eta dinamizatzen ditu, liburuen irakurketa gidatuz.
Hartzaileak	16 urtetik gorako pertsonak
Helburuak	<p>Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea. Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea.</p> <p>Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko.</p> <p>Obra baten irakurketan sakontzea klubeko kideen eta dinamizatzailearen laguntzarekin, irakurtzerakoan sarri ihes egiten diguna aurkitu nahian.</p>
Egutegia	8 saio egiten dira urtean, bat hilean behin.
Bitartekoak	Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Peru Magdalena Arriaga
Aurrekontua	1.760,00 €
Balorazioa	Ikasturte amaieran inkesta bat egiten zaie parte-hartzaileei eta saioak dinamizatzen dituen pertsonari. Galderak ikastaroari, dinamizatzaileari, azpiegiturari eta plangintzari buruzkoak dira. 97 pertsonak parte hartu dute.
Oharrak	Gure klubaz gain, beste 6 irakurketa-klubei lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexek dira: Pagatxa eta Biztu elkarteak eta Litertxoko antolatzen duena. Halaber, Irakurketa errazeko 3 talderi ere ematen diegu zerbitzua: Eibarko Egogain Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, San Andres Egoitzako Fundazio Publikoko taldea eta AGIFES .

Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskaraz)



Deskribapena

Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilerak **liburuaren egilea bertan dela** egiten dira; idazleak bere ibilbideari buruz hitz egiten du, liburuan erabilitako literatura-prozesuaz, parte-hartzaileen galderei erantzuten die, eta abar.

Hartzaileak

16 urtetik gorako pertsonak

Helburuak

Euskaraz irakurtzea bultzatzea

Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea.

Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea.

Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko.

Obra baten irakurketan sakontzea

Egutegia

8 saio egiten dira urtean zehar, hilean bat, urritik maiatzera bitartean.

Bitartekoak eta lankidetzak

Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.

...Eta kitto! Euskara Elkarteak lankidetzan dihardu Liburutegiarekin jarduera honetan.

Euskara bultzatzeko Udalak duen Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da jarduera.

Euskal Idazleen Elkarteak lagundu egiten du, idazleekin harremanetan jarriz eta saioaren zati bat diruz lagunduz.

Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Antxon Narbaiza, zeinak parte-hartzaileei banatzen zaien irakurketen iruzkina idazten duen.
Aurrekontua	1.280,00 €
Ebaluazioa.	68 pertsonak parte hartu dute egin diren saioetan. Saioetara gonbidatu diren idazleak 4 gizon eta 4 emakume izan dira.

Irakurketa errazeko klubak

Gure irakurketa-klubez gain, **irakurketa errazeko** 3 talderi lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Eibarko **Egogain** Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldea eta **AGIFES**.

Gainera, toki berezi bat dugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun.

Aurten talde bakar batek ere ez du saio presentzialik egin Liburutegian.

164 liburuz osatutako 15 lote laga ditugu.

Liburuaren Nazioarteko eguna



Deskribapena	Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, helduentzako ipuin-kontaketa saio bat antolatu dugu.
Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Liburuaren Eguna ospatzea eta helduentzako ezohiko jarduerak eskaintzea Irakurzaletasuna bultzatzea
Noiz	Apirila
Bitartekoak	Dorleta Kortazarren kontratazioa.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	363,00 €
Ebaluazioa.	24 pertsona egon ziren, 20 emakume eta 4 gizon. Balorazioa positiboa da.

Hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak



Deskribapena Gai jakin bati buruzko hitzaldiak edo liburu-aurkezpenak egiten dira. Abendua. “Renta básica: una herramienta de futuro” liburuaren aurkezpena: Julen Bollain Urbieta. Aurkezpenaren ondoren mahai-inguru bat egon zen.

Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Idazleak irakurleengana hurbiltzea Kulturaren zabalkundea
Egutegia	Urtean zehar.
Bitartekoak	Egile eibartarrak bere liburua aurkeztu zuen. Kartelak eta hedapena.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa	Aurten aurkezpen bakarra egon da. 22 pertsonak hartu zuten parte; 6 emakume eta 16 gizon.

Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque



Deskribapena Jarduera honetan bilerak egiten dira aldi behin hizkuntzak lantzeko. Liburutegia erabiltzen da hizkuntza lantzeko topaleku gisa, gaurkotasuneko edozein gairi buruz hitz egiteko aitzakiarekin.

Helburuak Liburutegia erabiltzea hizkuntzak modu ez formalean ikasteko. Hizkuntzak ikasteko material egokia erostea proposatzea. Hizkuntzak ikasteko Liburutegiak duen funtsa erabiltzea. Liburutegiko erabiltzaileen esperientziaz eta ezagutzaz baliatzea. Harreman sozialak sustatzea: Liburutegia sozializazio gune bihurtzea.

Gure erabiltzaileen artean interesa pizten duten jakintza-esparruei bide ematea.

Liburutegia, hizkuntzen mintza-praktikaren bidez, lan-profila hobetzeko toki gisa erabiltzea.

Jarduera planteatzea ikaskuntza formalaren osagarri gisa eta ez haren ordeko.

Noiz Urtarriletik ekainera eta urritik abendura.

Bitartekoak Herriko hizkuntza-akademietako irakasleak kontratatu dira.


Proiektuaren arduraduna Liburutegiko arduraduna.

Aurrekontua **3.797,25 €**

Ebaluazioa. Parte hartu dutenen balorazioa oso positiboa da, atzerriko hizkuntza bat doan lantzeko aukera ematen baitaie.

32 saio egin dira frantsesez eta guztira 234 pertsonak hartu dute parte; ingelesez 33 saio egin dira eta 187 pertsonak hartu zuten parte.

Hitzak zaindari erakusketa



Deskribapena

“Hitzak Zaindari” egitasmoa, zaintzaren gaia jorratzen duena, euskal argitaletxeen ekoizpen-katean lan egiten duten elkarteek sortutako ekimena da.

Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Gipuzkoan garatu da eta “zaintzaren” gaia du ardatz. Euskal Literaturaren bost adituk 20 euskal testu aukeratu dituzte, zaintzaren ertzak erakusteko, zeren hitzek ere zaindu dezakete.
Noiz	Urriaren 18tik 31ra bitartean.
Bitartekoak	Liburutegiko funtzio anitzeko aretoa egokitu da. Interesgune bat jarri da aukeratutako testuen liburuekin.
Proiektuaren arduraduna	Erakusketaren antolatzaileak: EIZIE (euskal itzultzaileen, zuzentzaileen eta interpreteen elkarte), EEE (euskal editoreen elkarte), EIE (euskal idazleen elkarte) eta Galtzagorri (haur eta gazte literaturaren elkarte), Kutxa Fundazioarekin batera.

Aurrekontua	311,55 € listoi bat jartzeko laminak ipintzeko eta pertsiana bat gela egokitzeko.
Ebaluazioa.	Ez zen jende asko egon.

Erakusketak interesguneetan



Urtean zehar gure funts bibliografikoaren erakusketak antolatzen ditugu, Portaleko kultura etxean antolatutako jarduerak, efemerideak edo beste ekitaldi batzuk aitzakia hartuta.

Hartzaileak Publiko orokorra

Helburuak Liburutegiko funtsaren zabalkundea egitea
 Berriak ez diren materialei irteera ematea
 Euskaraz irakurtzea bultzatzea

Egutegia Urtean zehar

Bitartekoak Kartelak, erakus-mahaiak eta Liburutegiko funtsa. Batzuetan, gidak egiten ditugu paperean zein formatu digitalean, eta horien zabalkundea

egiten dugu gure webgunearen bidez
<https://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca/publicaciones/guias-de-lectura>

Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko langileak
Aurrekontua	0,00 €

Balorazioa

Aurten 19 erakusketa egin dira; hauexek nabarmendu nahi ditugu: *Tejiendo redes de vida* izenekoa (martxoaren 8aren ingurukoa), II. Errepublikaren 90. urteurrena, *Miguel Delibes y Eibar*, eta Eibarko fundazioaren 675. urteurrena.

Beti nabaritzen da interesgunean jartzen den materiala maileguan eramaten dela.

KOPURUAK

Bisitak / Erabiltzaileak

74.828 bisita, 247 pertsona egunean (% 63) Liburutegia itxita egon da **62 egunez** eta edukiera erdira murriztu da ia urte osoan.

Personas usuarias con carné de biblioteca

11.343 pertsona izan ziren (biztanleriaren² % **41,50**)

Pertsona helduak	15 urtetik beherakoak	Erakundeak	Liburutegiak
8.787	2.457	88	11

Emakumeak	Gizonak	Ez aplikagarria ³	Ez binarioa
6.190	5.052	100	1

2021ean alta eman duten bazkideak: **426**.

Pertsona helduak	15 urtetik beherakoak	Erakundeak	Liburutegiak
172	251	3	0

Emakumeak	Gizonak	Ez aplikagarria	Ez binarioa
235	188	3	0

Erabilera ordutegi berezian

1.567 pertsonak erabili zuten Liburutegia eguerdian, azterketengatik egun osoa zabalik izaten dugun garaian.

² Biztanleria: 27.328 (2021/12/31)

³ Erakundea

Katalogazioa eta funtsa

Funtsa osoa 2021eko abenduaren 31n: **87.009**

Altak 2021ean: **4.099**

Dokumentuak biztanleko Eibarren: **3,18**

Bajak

Dokumentu galduak 2021ean: **33**

Dokumentu espurgatuak: **1.395**.

Herriko bilduma

Saiatzen gara eskuratzen Eibarren, Eibarri buruz edo Eibarko egileek argitaratzen duten guztia. Une honetan **3.738** dokumentu ditugu gure katalogoan; haietako batzuk bikoiztuta daude. Funts horren % 66 aldizkako argitalpenak dira.

Liburuklik

85 monografia ditugu digitalizaturik *Euskariana-n*⁴, edozein pertsonak kontsultatu edo irakur ditzan Internet erabiliz.

Maileguak

2021ean **32.369** mailegu egin ziren, **107** egunean eta 2020an, 108 egunean. Kontuan hartuta, pixkanaka normaltasuna berreskuratzen ari dela, COVID-19aren pandemiaren ondorioz liburutegira joan diren pertsonen kopurua eta horien erabilerak nabarmen jaitsi dira pandemiaren aurreko urteekin alderatuta. Gainera, liburutegiak oro har beheranzko joera erakusten ari dira maileguko kopuruei dagokienez. Horrela sailkatzen dira:

Helduen liburutegia: 18.774

Haurren liburutegia: 13.595

Euskaraz: 8.259

Liburu digitalak⁵: **1.818**

⁴ Euskariana: <https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/home/home.do#>

⁵ Datu hau ez dago sartuta mailegu orokorrean

Desideratak

Desideratak erabiltzaileek Liburutegian ez dugun zerbait nahi dutenean egiten dituzten erosketa-eskaerak dira.

Eskabide horiek baloratu egiten dira, eta, komenigarritzat iritziz gero, erosi egiten dira.

2021ean **281 desiderata** egin dira; horietatik 268 onartu dira eta 11 baztertu.

Internet zerbitzuaren erabilera

4.057 saio egin ziren erabilera publikorako ditugun ordenagailuetan, **479** Haur Liburutegian eta **3.578** Helduen Liburutegian la urte osoan, ekipoen edukiera erdira murriztuta egon da.

Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak

Web-orria

<http://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca>, **gaztelaniazko** web-orriak **16.800** bisita izan zituen.

Atalik bisitatuenak izan ziren katalogoa, informazio orokorra eta ordutegia, online-zerbitzuak, zerbitzuak eta erabilerak, Haur Liburutegiaren bloga, berrikuntzak eta zerbitzuen karta.

<http://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia> **euskarazko** web-orriak **3.163** bisita izan zituen.

Atalik kontsultatuenetakoak hauexek izan ziren: katalogoa, berrikuntzak, argitalpenak, informazio orokorra eta ordutegia, zerbitzuak eta erabilerak, eta irakurtzeko gidak bai helduentzat bai umeentzat.

19.963 bisitetatik, **% 84ek** gaztelaniaz egin dute eta **% 16k** euskaraz.

De un total de **19.963** visitas, un **84 %** lo ha hecho en castellano y un **16 %** en euskera.

OPAC (sareko katalogoa)

Bilaketak OPAC-en (katalogoan): **10.045**

Sare sozialak

Sare sozialei dagokienez, hauexek dira datuak:

	2020	2021
	Jarraitzaileak	Jarraitzaileak
Facebook	582	595
Twitter	847	883
Instagram	311	445
Sare Sozialak	1.740	1.923
Guztira		

Zenbat eta gehiago argitaratu, orduan eta interkazio gehiago lortzen da. Twitterren bidez jarraitzen digutenak dira interkazio gehiena dutenak eskaintzen dugun edukiarekin, eta bigarren tokian Instagrameko erabiltzaileak daude. Facebooken, jarduera txikiagoa da.

[Haur Liburutegiaren blogari](#) dagokionez, hauexek dira emaitzak:

	Erabiltzaile- kopurua	Saio-kopurua	Bisitatutako orriak
2021	1842	2414	8269

Zer gailutatik konektatu den:

Ordenagailua: % 66,6

Sakelako telefonoa % 32,6

Tableta: % 0,8

2020ko datuekin alderatuta

% 37,6 erabiltzaile gehiago

Hasitako saioak % 42,6 gehiago izan dira

Ikusitako orriak % 15,5 gehiago

Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza

Hainbat talde daude parte hartzen dutenak antolatzen diren jardueretan, eta ikasturte-hasieran izena ematen dutenak: irakurketa-klubak, ikastetxeen bisitak... Gainera, sarrera libre

duten hainbat ekitaldi egiten dira, hala nola ipuin kontalarien saioak, liburu-aurkezpenak eta tailerren bat edo beste.


Urtean zehar jarduera horietan parte hartu duten **personak 1.915** izan dira, **191 saio** antolatuta.

Edukierak mugatuak egon dira ia urte osoan eta jende asko falta izan da.

Erabiltzaileak

Liburutegira datozen pertsonak


Iaz **74.828 pertsona** etorri ziren Liburutegira Haietatik, **32.585 goizez** etorri ziren eta **40.614 arratsaldez**.



Bisitarien kopuruak gora egin du pixka bat 2020arekin alderatuta, baina ez da iristen aurreko urteetako kopuruetara, edukiera % 60ra murriztu delako ia urte osoan.

Bazkideak

2021ean **426 bazkide berri** izan genituen, **11.343** dira guztira. 2021ean zehar Eusko Jaurlaritzako Liburutegien Zerbitzuak bazkideen datu-basearen garbiketa bat egin du, eta ezabatu egin ditu 10 urtez txartela erabili ez dutenak, bai eta 5 urtean iraungita zeudenak ere. Horrek jaitziera bat ekarri du Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi guztiei eragin diena.



2017ko igoera Bularretik Mintzora programari zor zaio.

Kontuan hartu behar da ezen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kide izanik, txartel bakarra dago, gure erabiltzaileak artatzeaz gain beste heri batzuetakoak diren pertsonak ere artatzen ditugula.


Bazkideak adinaren arabera

2021ean Liburutegiko txartela eskatu zuten pertsonen % **62** hamalau urtetik beherakoak izan ziren. Neska-mutikoen proportzio altua **Bularretik Mintzora** programaren eraginari zor zaio eta baita Umeen Liburutegiari eman zaion bultzadari ere, erabiltzaileei trebakuntza eman baitzaie ikastetxeko ikasleekin etor daitezten Liburutegiko zerbitzuak eta funtzionamendua ezagutzera.

Baina datuak modu orokorragoan hartuta, bazkideen % **31** **41** eta **65** urte artekoa da eta % **18,50** **25-40** urte artekoa.

Ikasleek asko erabiltzen dute Liburutegia irakurketa-gela bezala, baina gehienak ez dira bertako bazkide. Nahiz eta Eibarren pertsona jubilatu asko egon, oro har ez dira Liburutegiko bazkide. Nahiz eta kontuan hartu behar den hemeroteca-zerbitzua erabiltzeko ez dela beharrezkoa liburutegiko txartela edukitzea.

Bazkideak adinaren arabera



Irakurle aktiboak

Irakurle aktiboak dira mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenak.

Txartela dutenak eta mailegu-zerbitzua gutxienez urtean behin erabili dutenak 2021. Urtean.

Guztira 2.994 izan dira, eta adinaren eta irakurle motaren arabera sailkatuz gero, honelaxe geratzen da taula:

	Helduak	Umeak	Erakundeak	Beste liburutegi batzuk
2021	1.709	1.241	36	8

Funts bibliografikoa

2021ean **4.099 ale** gehitu ziren Liburutegiko bildumara. Horietatik gehienak berriak izan ziren, baina tartean baziren ondare bibliografikoari dagozkionak, atzera-begirako katalogazioari dagozkionak, edo dohaintza bidez emandakoak.

Dagoeneko 87.009 dokumentu ditugu eta gure ekipamenduak ezingo du askoz gehiago hartu. Beraz, orain arte espurgatu ditugunak baino liburu gehiago erretiratu beharko ditugu. 2021ean **1.395 ale espurgatu dira**.


Ez ditugu hemen sartu **eLiburutegia** funtsa osatzen dutenak, alegia, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eskuratutakoak Sare orsoko mailegu digitalerako: **guztira 23.828 liburu**

digital, 80 audioliburu, 591 liburu Daysi⁶ formatuan, 10.171 pelikula, eta 752 aldizkari, 36.05e alerekin.

Maileguak

2021ean **32.369** mailegu egin ziren, egunean 107. 2019an baino 6.960 baino gutxiago izan baziren ere, egunean batez beste **23 mailegu gutxiago egin ziren**. Oraindik ez da berreskuratu pandemiaren aurretik genuen erabilera.

Maileguaren datu horri gehitu behar zaio liburutegiarteko mailegu bidez kudeatzeko aukera ere badagoela; eta modu horretan **2.932** dokumentu kudeatu dira.



⁶ Informazio Digital Eskuragarriaren Sistema. Consulta 2022-01-17:
https://es.wikipedia.org/wiki/Sistema_de_Informaci%C3%B3n_Digital_Accesible

Helduen atalean egindako maileguak

2021ean maileguan gehien laga diren nobelak hauexek dira:




Miñan
(Amets Arzallus-Ibrahima Balde)
Susa, 2019



Aitaren etxea
(Karmele Jaio)
Elkar, 2019




Bigarren sexua
(Simone de Beauvoir)
Elkar-Jakin, 2019



Rey Blanco
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2020



Loba Negra
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2019




Reina Roja
(Juan Gómez-Jurado)
Ediciones B, 2018

DVD gehien lagatakoak:



Patria




The Crown. Temporada uno




El señor de los anillos. Trilogía

Maileguaren bilakaera azken 10 urteotan hauxe izan da:



Helduen atalean mailegua jaitsi egin da euskarri guztietan. Grafiko hau ikusita aurreikusten dugu formatu digitaleko irakurketan igoera izan dela, eta maileguaren jaitsiera 2020 urteaz geroztik, gainerako zerbitzuekin gertatu den bezala, COVID-10aren pandemiaren erruz.




Euskarriari dagokionez, liburua da protagonista, argi eta garbi; hurrengo DVDak daude, eta jarraian musika eta aldizkariak. CD-ROMen mailegua eta eReaders-ena hutsaren hurrengoa da, hortaz, 2021ean erabat espurgatu ditugu CD-ROMak.

Azken urteotan mailegu tradizionala jaisten ari da. Interneteko kontsultak eta irakurketa digitala asko nabaritu dira Liburutegietan, eta ikusten ari gara mailegu-kopurua behera egiten ari dela. Horrekin batera, pelikula eta telesailen harpidetza-plataformak goraldi bat izaten ari dira (Netflix, HBO...), eta baita musika entzutekoak diren harpidetza-plataformak ere, hala nola Spotify.

Umeen atalean egindako maileguak

Azken 5 urteotan Umeen Liburutegian egindako maileguaren bilakaera grafiko honetan ikus daiteke:



2019an baino **2.997 dokumentu gutxiago** laga dira maileguan. Azken urteotan umeentzako liburuaren maileguen igoera izan badugu, hori Bularretik Mintzora programari, irakurketa-klubei eta ikastetxeei liburu-sortak mailegatzeari zor zaio. 2020. urtearekin alderatuta, berreskuratzen ari da mailegu-zerbitzua.

2021. urtean gehien mailegatu diren liburuak, euskaraz eta gaztelaniaz, hauexek izan ziren:




Neu naiz indartsuena
(Mario Ramos)
Ttartalo, 2011



Pintto eta Mozart
(Magali Le Huche)
Ttartalo, 2019



Urtaroen erritmoan dantzan!
(Clauca Bielinsky)
Ibaizabal, 2018



Doraemon
(Fujiko F. Fujio)
Planeta Cómics, 2017



Yo-Kai watch
(Noriyuki Konishi)
Norma, 2016




Y no llegues tarde
(Roberto Aliaga)
MacMillan Iberia, 2012

DVD mailegatuenak:



La oveja Shaun. Temporada 2




Triki, traka, tron
Txirri, Mirri, Txirribiton




La vuelta al mundo de Willy Fog

Azken bost urteotako maileguak, euskarriaren arabera, hauxe izan dira:




Grafikoan ikusten da aldizkariak, diskoak eta CD-ROMak ia ez direla mailegutzen.

Maileguak hizkuntzaren arabera




2021eko mailegu-portzentajeak hizkuntzaren arabera hauexek izan dira: **% 28 euskaraz** (aurreko urtearekiko % 3ko igoera), **% 67 gaztelaniaz eta % 5 beste hizkuntza batzuetan**.
2019an: % 27 euskaraz, % 68 gaztelaniaz eta % 5 beste hizkuntza batzuetan.

Mailegua sexuen arabera



Datu hau ez da aldatu pandemiarekin. Emakumeak dira mailegu-zerbitzua gehien erabiltzen dutenak: 2021ean **emakumeak, erabiltzaileen % 56 eta gizonak, % 40**

Mailegua adinaren arabera



Maileguaren % 29 umeek egin zuten; datu hori esanguratsua da, bazkideen **% 23,63** bakarrik baitira **15 urtetik beherakoak**.

Automailegua

Aurten automailegurako makina ez da martxan egon hainbat hilabetez, zeren itzulketa guztiek koarentena-aldi bat pasatu behar zuten erabiltzaileen txartelak etenda geratzen ziren eta ezin zuten makina erabili.

Guztira, **687 dokumentu** mailegatu dira prozedura horrekin.

Liburutegiarteko mailegua

Haxe da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzu izarretako bat. Sareko edozein liburutegitako txartela duen erabiltzaileak Sareko funtsera jo dezake, aukeratu duen liburutegiko erakus-mahaian eskatuta. Alegia, bere liburutegian eskuragarri ez dagoen funtsa eskura dezake Sareko beste liburutegi baten bidez, eskaera bat eginda.

Datuei dagokienez, hauexek dira 2021ean jaso direnak: **2.932 liburu, 2020an baino 419 gehiago**. Datu horietan sartzen dira irakurketa-klubek eskatutakoak, liburuez hornitzen baititugu, eta aurten askoz ere saio gutxiago egin dira.

Beste liburutegi batzuei lagatako dokumentuak: **1.545** (1.543 Sarearen barruan, 1 Koldo Mitxelena Liburutegiari, 1 Ciudad Realen dagoen Estatuko Liburutegi Publikoari)

Eskatutako dokumentuak: **1.387** (1.383 Sarearen barruan, 3 Koldo Mitxelena Liburutegiari, 1 EHU-ko Gasteizko Campuseko Liburutegiari)

Irakurketa-klubei lagatako liburuak: **431 liburu, 29 liburu-sorta**.

Maileguetan sartuta daude gure irakurketa-klubentzako liburu-sortak.

10 irakurketa-talderi lagatzen dizkiegu liburuak: Liburutegiko helduen klub biak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) eta umeen bi taldeak; bai eta Eibarren dauden honako klub hauek ere: Pagatxa, Biztu, San Andrés Egoitza, Egogain Zentro Gerontologikoa (URTMS) eta AGIFES. Horrek nabarmen handitzen du liburutegiarteko mailegua, batez ere, eskatutako liburuena.

Hauexek dira lagatako loteak:

Agifes (Irakurketa erraza): 6 lote = 72 mailegu

Biztu: 6 lote = 119 mailegu

Egogain (Irakurketa erraza): 5 lote = 52 mailegu

Litertxoko: 7 lote = 128 mailegu

Pagatxa: 1 lote = 20 mailegu

San Andrés Egoitza (Irakurketa erraza): 4 lote = 40 mailegu

Guztira, hortaz, **431** izan dira liburutegiarteko mailegutzan irakurketa-klubei lagatako loteak.





eLiburutegia zerbitzua

eLiburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua da, eta Internet bidez eduki digitalak irakurtzea errazten duen plataforma bat da, bai streaming bidez, bai ordenagailuan edo gailu mugikorretan. 2018az geroztik zinema eta ikus-entzunezkoak online ikusteko aukera ere ematen du. 2021az geroztik aldizkariak ere sartu dira. Zerbitzu honen hasiera-orria hau da: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus/?locale=eu>

Zerbitzu hau erabili ahal izateko Sareko edozein liburutegitako bazkide-txartela baino ez da eduki behar.

2020an, **liburutegiok** pandemiaren ondorioz gure espazio fisikoak **itxi behar izan genituenean, zerbitzu honen eskaria nabarmen hazi zen**. Hain zuzen ere, ikusi besterik ez dago zer erabilera izan duen plataformak aurreko urteekin alderatuta.



2021ean **133 eibartar gehiago** izan genituen **eLiburutegia** zerbitzuan. Guztira, 1.818 liburu deskargatu dira Eibartik, eta kopurua aurreko urtearekin alderatuta baxuagoa bada ere, 2019an baino altuagoa da. Oso datu positiboa da pandemiaren ondorioz izan den kopuru-jaitsiera kontuan hartuta.

eFilm doako deskarga-zerbitzuari dagokionez, nahiz eta 2021ean jaitsiera bat egon deskargetan, kopurua ez da txikia; guztira **18.492 pelikula jaitsi** dira Liburutegien Sare osoan, 2019an halako bi ia.

laz aldizkarien funtsa sartu zen eLiburutegian, eta urte amaieran **752 aldizkari** genituen, **36.053** alerekin. **1.851** ale laga dira **2021ean**.

HOME | KIOSKO



KONTUAK

Diru-sarrerak

DIRU-SARRERAK GUZTIRA	20.789 €
DIRULAGUNTZAK	20.789 €
Eusko Jaurlaritz	18.774 €
Funts bibliografikoak berriztea	15.130 €
Irakurzaletasuna bultzatzea	3.644 €
Teknologia berriak ezartzea eta garatzea ⁷	€
Kultura eta Kirol Ministerioa	2.015 €
"María Moliner" lehiaketa: irakurtzea sustatzeko proiektuak	2.015 €

Gastuak

GASTUAK GUZTIRA⁸	80.860 €
2. Kapitulu	62.863 €
Ekipoen mantentze-lana	3.493 €
Makinak, instalazioak eta tresnak	3.493 €
Funts bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa	48.473 €
Egunkariak, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	30.172 €
Beste hornidura batzuk	18.301 €
Publizitatea, sariak	225 €
Protokoloa eta ordezkaritza	225 €

⁷ Ebatzi gabe (2022-02-22)

⁸ Ez dago sartuta Pertsonaleko Gastuen I. Kapitulu

Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	0 €	
Jarduera sozio-kulturalak		19.352 €
Bilerak eta hitzaldiak	1.280 €	
Kontratu soziokulturalak	18.072 €	
4. Kapitulua		2.025 €
Dirulaguntzak		2.025 €
Irabazi asmorik gabeko erakundeak (Eibar aldizkaria)	2.025 €	
6. Kapitulua		17.121 €
Ekipo informatikoak		17.121 €
Informazio-prozesuetarako ekipoak Teknologia berriak	17.121 €	

PRESTAKUNTZA

IKASTAROA	MODALITAT EA:	NORK EMAN DUEN	PARTE HARTZAILEAK
JEID21 Informazioaren eta Dokumentazioaren inguruko Espainiako Jardunaldiak	LINEAN	FESABID	1
Bideo promozionalak egitea Kdenlive-rekin	LINEAN	MURTZIAKO LURRALDE UNITATEA	1
Segurtasuna eta osasuna bulegoetan	LINEAN	QUIRONPREVENCION	2
Teknikari, dokumentu digitalen informazio, ekoizpen eta deskribapenaren gestioan	LINEAN	EUSKO JAURLARITZA (Liburutegi zerbitzua)	2
Datuen babesterako legedi berria	LINEAN	P3s.eusCybersecurity Services	1

HORREZ GAIN...

Liburutegi Publikoen X. Kongresu Nazionalen parte hartzea

Liburutegi Publikoen X. Kongresu Nazionalen hartu dugu parte bi modalitatetan:

1. “El modelo Ikanos aplicado al diseño de competencias digitales para el colectivo de las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi” izeneko **komunikazioa** aurkeztuz, Eusko Jaurlaritzako Liburutegien Zerbitzuko zuzendari Francisca Pulgar Vernalterekin batera.



Komunikazioaren laburpena:

Eusko Jaurlaritzak, 2015eko Agenda Digitalaren esparruan, Ikanos izeneko ekimen propioa jarri zuen abian, elkarlanean aritzeko, partekatzeko eta gaitasun digitalak zer diren eta nola eskuratu daitezkeen zabaltzeko. Ekimenak gaitasun digitalen Europako esparrua Euskadin bultzatzea eta hedatzea du helburu, eta erakundeei eta profesionalei beren profil profesional digitala egiten laguntzen dieten urrats, ekintza eta tresna batzuk eskaintzen ditu.

2. Bideo bat aurkeztuz X. Kongresuaren edukiarekin lotutako **bideo bat** aurkeztuz: “Eleibar: liburutegia arrakala digitalaren aurrean”.



Artikuluaren ibersid-en: informazio- eta dokumentazio-sistemen aldizkaria

2021ean Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko ikasle bat izan genuen Eibarko Juan San Martín Udal Liburutegian “*Máster en Gestión de la Documentación, Bibliotecas y Archivos*” izeneko masterrari zegozkion praktikak egiten, Unibertsitate horrek eta Eibarko Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez. Zehazki, praktikak egin zituen Eleibar proiektu pilotuan.

Ibersid-en argitaratutako artikulua akademiko batean, gure liburutegian egindako egitasmo osoaren berri ematen da

Artikulua honako izenburuarekin argitaratu zen: *“Las bibliotecas como agentes de desarrollo ante la incidencia de la COVID-19 en la brecha digital: un estudio de caso”*⁹

Armeria Eskolak emandako funtsa



1.342 erregistro katalogatu dira 2020ko uztailetik 2021eko ekainera arte, denak ere monografiak eta 1.505 kopiari eman zaie alta. Funtsa hau Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoan kontsultatu daiteke.

⁹ Carranza Diez, K. E., Arquero Avilés, R., & Alberdi Zubiaurre, E. (2021). Las bibliotecas como agentes de desarrollo ante la incidencia de la COVID-19 en la brecha digital: un estudio de caso. *Ibersid: Revista De Sistemas De información Y documentación*, 15(2), 37–46. <https://doi.org/10.54886/ibersid.v15i2.4752>

Armeria Eskolako funtsaren egungo errealitatea hauxe da:

	INBENTARIATUAK	KATALOGATUAK	AZTERTU GABEAK
XIX. mendeko dokumentuak	56	25	31
1900-1958 epe arteko dokumentuak	1.141	814	327
1959-1993 epe arteko dokumentuak	1.619	666	953
GUZTIRA	2.816	1.505	1.311